

artikulu nabarmenak
artículos destacados

2012



Gazteen
Euskal Behatokia
Observatorio Vasco
de la Juventud

Uztaila-abuztua



Jiménez Barbero, Jose Antonio... et al. Effectiveness of antibullying school programmes: A systematic review by evidence levels.

Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetan (bi sexueta 6-16 urteko biztanleak) indarkeria prebenitzeko edo murrizteko programen eraginkortasuna aztertzea da ikerlan honen helburua. Indarkeria eta jazarpena prebenitu edo murrizteko eskola-eskuhartzeen eraginkortasunaren ebaluazioari buruz 2000tik aurrera argitaratu diren azterlanetako datu-base elektronikoetan bilaketa sistematikoak egitean oinarritu da metodologia. Ebaluatutako programak eraginkorrak izan diren zantzuak antzeman dira azterketan, baina baita muga larriak ere, etorkizunean esku-hartzeak diseinatzeko garaian kontuan hartu beharrekoak. Azkenean, programek jarraitzea behar-beharrezkoa dela adierazten dute emaitzek, programon eraginkortasuna epe luzera bermatuko bada.

Children and Youth Services Review, 34. lib., 9.zk., 2012ko iraila, 1646-1658. or.



Belda Ibañez, José F.; Jareño González, Amparo; Martínez Sánchez, Amparo. La voz de los que no tienen voz. Esperanzas y desesperanzas de los jóvenes, sus miedos ante la vida.

Artikulu honetan, gazteen pentsamenduak ezagutu eta ulertu nahi dira, bereziki bizitzaren aurrean dituzten beldurrak. Ikerlanean parte hartu duten gazteak 15 eta 20 urte bitartekoak dira, Valentzia hiria inguruetako udalerrietako ikastetxeetako bi sexueta ikasleak.

Revista de ciencias de la educación, 230. zk., 2012ko apirila-ekaina, 207-226. or.



Moreno, Almudena. The transition to adulthood in Spain in a comparative perspective: The incidence of structural factors.

Helduarorako trantsizio-prozesuan parte hartzen duten balizko faktoreak konparatiboki deskribatu eta zehaztea da artikulu honen helburua. Arreta berezia eman zaie Espainian gazteek gurasoen etxetik horren berandu irtetea azaltzen duten faktoreei. Lortutako emaitzek aditzera ematen dutenez, Europako hegoaldeko ongizate-erregimenetan, bereziki, Espainian, gurasoekiko mendekotasun-kultura sortu dute hainbat faktorek (emantzipazio-politika eskasak, belaunaldien arteko elkartasuna, etxebizitzaren jabetzaren kultura eta abar), kapitala pilatzeko eta ingurune prekarioetako arriskuei aurre egiteko estrategia gisa.

Young: Nordic journal of Youth research, 20. lib., 2012ko otsaila, 19-48. or.



Beltrán Carrillo, Vicente J... et al. When physical activity participation promotes inactivity: negative experiences of Spanish adolescents in physical education and sport.

Heziketa fisikoan eta kirolean inaktiboak diren nerabeen talde bati egindako elkarrizketa kualitatiboetan jaso diren esperientzia negatiboak aztertzen dira artikulu honetan. Azterketaren analisia bitarikoa da. Batetik, esperientzia negatiboak izan dituzten gazteen ahotsa entzunarazi nahi du eta esperientzia horiek gertatu diren testuinguruarekin lotu. Bestetik, egileek inaktibitatea eta esperientzia negatiboak lotu nahi dituzte. Egileen ondorioen arabera, gazteek zailtasunak baliagarriak izan daitezke jarduera fisikoko programei buruz kritikoki hausnartzeko. Izan ere, jarduera fisikoan aritzen diren ikasle guztientzat zailtasunetako jarduera ontzat jotzen dira sarri.

Youth & Society, 44. lib., 1. zk., 2012ko martxoa, 3-27. or.